

KONTU KONTARI

“SASIBIL BASERRIA”

Zer dogu au? Antzerki edo opera bat; Jesus Guridi gasteiztarrak musika jarri eutsan F. Romero eta G. Fez. Shaw'en letrari. Euskal opera ikusgarria, gasteiztar musikolariaren gauza guztiak lez. Oraintsurarte «El Caserío» izenez ezagutzen gendua, gaur euskeraz daukagu eta orrelaxe antzeztu zan, euskeraz, Bilbo'ko «Teatro Campos»-en aurtengo iraillaren 24'an, gabeko 9'etan. Itzulpena Esteban Astarloa'k egiña da, nik gaiñ ikusi bat egiñaz. Itzulpen ederra, musika ta euskera ondo dakizanak osotua.

Onurazko jaialdia ospatu zan gau orretan Bilbo'n, aurreko uraldi edo uoldetan minduak izan ziranen alde eskeiña. Eta arri-garria, Euzkadi'ko kantari ta antzezlariak ezin-egiña agertu ebenean, Madrid'eko «Euskal Etxea»-k burutu eban lana. Laguntzak, dubarik, Bilbo'ko Orkesta Sinfonikoa ta Madrid'eko «Euskal Etxeko»-ko Abesbatza. Antzez zuzendari: Antonio Amengual. Orkesta zuzendari: Miguel Roa. Soprano: Idoia Garmendia. Tenora: Fabian Ormaetxe eta baritono, Esteban Astarloa. Dantzariak eta txistulariak; baserritarrak, Elgoibarkoak, eliz-mutillak, eta abar. Egintza: Arrigorri'n, irudizko Bizkaiko erritxo baten. Erderaz 1926'an antzeztu zan leengoz, eta Bilbo'n urte bete ta geitxoago dalarik.

Antzokia bete-bete egin zan, iraillaren 24'an. Bizkai ta Gipuzkoako erri askotatik bertaratutakoak agertu genduzan. Bai

antzezlarien lana eta bai musikajotzailleena, guztiz txalotua izan zan. Naiz-ta jardun luze samarra izan, jentea etzan nekatu. Izan be, ez ginduezan nekatzen E. Astarloa'ren abots sendo mamintsuak, ezta Idoia'ren zoli gozoak, beste guztiai ezer kendu barik. Maritxu Abaitua'k eta Maite Lujanbio'k be erakutsi euskuen euren grazia ta erreztasuna. Labur: ikusle-entzuleak ikusia ta entzuna goratuz eta antzezleriak poz-pozik etxera. Bai, gu baxotxa bere errira eta E. Astarloa eta bere konpañia, Madrid'era.

Urrengo egunean, neure poza agertu ta zorionak emonez, eta emengo egunerokoetan bere bizitzari ta egintzai buruz agertu ziran errakuntza ta akatsai erantzuna, zeatza nunbait, emoteko eskatuz idatzi neutsan karteari onela ezarri eutson erantzuna :

«Mallabian, "Etxekone" deritxon baserrian jaiio nintzan eta amar urte nituanean Larreako Karmeliten Ikastetxean sartu eta eurokin Markinan, Irunan, eta Gazteizen ikasketak jarraituz, irugarren Filosofi ikastaroa amaitzean, emengo gerraldiak Gazteizen arrapatu ninduan eta an ibili nintzan batetik bestera, 4 urtez, baina Jaungoikoari esker, "tiro" bat bota bage Osasun serbitzuan egon nintzalako.

» Gero, "ez nintzala praile ona izango eta", lagun batzuk Madrileko "Wagons Lits" lantokian sartu ninduen. An egon nintzan bitartean, Karmelitekin ikasi neban musikaz baliatuz, eta bertan 6 urtez, kantu ikasketak eginez gero, Españaldian ebiltzan munduko abeslari onenekin abestuten ibili nintzan (Victoria de los Angeles, Gigli, Philipeschi, Stephanoni) e. a., atzerrian guda edo guda-oste gogorra egoelako. Garai artan 15-20 opera menperatu eta antzeztu nituan, baina kanpoko egoera larriak, familia eratu naiak eta onetarako eguneroko ogia zuzendu bearrak, egoera tinkoago bat artzera eragin ninduan. Batez be, ezkongai-ekontza izan zan "txoriaren ego moztaille".

» Orduan zarzuelan sartu nintzan (itz egiteko be erreztasun osoa nebalako), eta sasoi artan izan ziran antzez-elkarte (Konpania) onenetan parte artu neban — "lenen baritono" — lez. Eundaka antzeztan eta milaka antzerkizun izan ziran nere antzez-jokabidean, 20 urte inguruan. Eta orrela, España laterri



Esteban Astarloa

osoan, Lisboan naiz Vienan, Parisen naiz Buenos Airesen, Karakas, Bogota, Montevideo, Tangerang, Gibraltar edo Barzelonako Lizeoan —(batzuk bakarrik aitatzeko)— itxi neban nere antzez-lorratza.

» Baita, bi urtez, nere izeneko Konpania ere erabili neban munduan zear (Ameriketan gora ta bera ibili ginen) eta Sorozabal, Alonso, Romo eta beste maisu askoren antzezlanak leen aldiz aurkeztu ere bai.

» Gitxi gora berako 25-26 urte orretan, antzerkia izan zan nere irabazbide bakarra, baina ba dira beste 17 urte inguru, kantuagaz batera, makina saltzaile lez igaro nituenak. Aldi onetan nere ogibide nagusia makinak izan ziran, baina kantua itxi barik eta neuk nai nebana eta nebanean bakarrik abestuz. Orain ere orrela diardut. Esate baterako, joan dan abuztuan amar antzerkizun egin nituan Madrileko "Centro de la Villa" teatroan, irailean "SASIBIL BASERRIA" Bilbon, eta datorren ilean Alikantera joan bear dot beste batzuk egitera.

» Bestalde, kantua bigarren zeregin lez artu nebanetik, beti barruan eroan dodan zerbait izan da nere barne-kezka: euskera. Jator-zentzuz erdi lotsatuta nenbilen beti "EL CASERIO" erderaz egiten nebanean. Ez aztu, ez nebala inoiz euskeraz antzerkizunik egin. Orregaitik nere poza ta atsegina oraintsu SASIBIL BASERRIA euskeraz antzeztu dogunean!

» Beraz, neretzat, baserritar antzezlari batentzat, bearrezkoa zan antzezlari onen itzulpena, eta, berau antzeztu arte, ez neban kantu-arloa itxi nai. Ondo etorriak, idazten egindako lanak, legeztatzeko arazo, buruauste eta entzutekoak entzuteak... Geroago, ezin Donostian, ezta Bilbon, ezta Gazteizen, uri orreetan antzeztalderik aurkitzeko edo antolatzeko gauza izan ez nintzalako. Eta Madrilen? Emen be eragozpenik izan da, baina azkenean, Bizkaiko Foru Aldundiari esker, baita Madrileko Euskal Etxeari, antzezlariak aurkitu eta antolaketa ederra egin al izan dogu.

» Baina, euskal ildorik euki barik, zer dala ta orrelako itzulpenik egiten ausartu? Ara! Kantura bakarrik lotuta nengoanean baino asti geiago neukan eta gogoan nerabilen Gazteizko kazetariak esan eustana: "Baserritarra ta euskaldun izan eta

'BASERRI'-ko gauzak erderaz"? Ta nik, zer egin? —Ba, euskera landu eta, aurrera!

» Ba neukan zer ikasi! 1941-tik aurrera Euskalerritik kanpo bizi naz eta euskera gitxi egin dot. Beraz, ez neukan bide bat baino: "orduak eta orduak emon euskera menperatzen". Orrela gainditu nituan Izkuntza Eskola Ofizialeko bost ikastaroak, azkenengo urtean GAITASUN agiria Bilbon jaritxirik. Eta oin-dino be sakonduz diardut irakaskuntzan ari nazan bitartean. Iru urte daroadaz lan onetan eta ustegabekoren bat sortzen ez bada, bardin jarraituko dot beste urte batzutan.

» Gomuta berezi bat Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, Madril-eko Euskal Etxearentzat eta zeutzat "SASIBIL BASERRIA"-rekin edo "SASIBIL BASERRIA"-z aspaldiko poztasun aundiena artu dodalako. Euskera ta antzerkia batzea amets polita da!»

Ba-dakigu, ba, nor dogun Esteban Astarloa, zertan jardun izan dan bere bizitzan zear, eta gaur be zer asmok eraginda dabilen. Beti euskal arloko lanetan. Onako gizasemeak merezi ditu gure txalo beroak!

Aita Onaindia